

Ostegunean, hilak 12, graduako ikasle berriei zuzendutako ate irekiak egingo dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean

2015/02/09

Oraingo asteko ostegunean, **hilak 12, graduako ikasle berriei zuzendutako ate irekiak** prestatu ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. **Saioak hasiko dira 18:00etan, eta egingo dira fakultateko bi campusetan:** Eskoriatzan eta Aretxabaletan. Saio horietan emango da informazio zehatza Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa graduei buruz. Oraindik aukera dago izena eman eta ate irekietara etortzeko.

Normalean, etorkizuneko graduako ikasleei zuzendutako ate irekiak larunbatetan egiten dira, baina, aurreko asteko elur ekaitzagatik, bertan behar utzi behar izan ziren hilaren 9rako antolatutako saioak. Sortutako hutsune hori betetzera datoz ostegun honetako ezohiko ate irekiak.

Ikasturtean zehar, lau ate ireki saio prestatzen ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Hauek izango dira aurrerago datak:

- **Martxoak 7**, larunbata, 11:00etan.
- **Apirilak 25**, larunbata, 11:00etan.
- **Maiatzak 30**, larunbata, 11:00etan.

Ate irekietara etorri ahal izateko, **aldez aurretik izena eman behar da** www.mondragon.edu/prest webgunean. Oraindik orain, aukera dago osteguneko saioetarako izena emateko.



Arratsaldeko 18:00etan egingo dira ate irekiak Eskoriatzako eta Aretxabaletako campusetan